


**ATZEKOZ AURRERA**


GORKA RUBIO / FOKU

# «Hurbil ditugun gauzak ez ditugu ikusten»

**Olatz Aizpurua • Aranzadiko ornitologoa**

Itzuli dira enarak eta sorbeltzak Euskal Herrira. Ohiko hegaldi akrobatikoak egiten ari dira eraikinen eta baserrien inguruan. Haien errolda egingo du Aranzadik, boluntarioen laguntzaz.

**Jakes Goikoetxea Donostia**

«Enarak dituzue Aranzadiko teiltuan», esan dio kazetariak Olatz Aizpuruari (Iruñea, 1980), hegaldi bizkor, eder eta jostalariak egiten dituzten txoriak ikusita. «Ez, horiek ez dira enarak, sorbeltzak baizik», zuzendu du ornitologoa kazetaria. Aranzadi zientzia elkarteak Enarak proiektua abiatu du, Kutxa fundazioaren laguntzarekin, enara arruntan (*Hirundo rustica*), enara azpizuriaren (*Delichon urbicum*) eta sorbeltzen (*Apus apus*) habiak erroldatzeko. Boluntarioak behar dituzte, kumatze garaian –ekainaren hasieratik uztailearen 15era arte– habiak aurkitzeko eta urtez urteko jarraipena egiteko. Datuak [Ornitho.eus](http://Ornitho.eus) zientzia atariaren bilduko dituzte. Gero, datuak bisore digital berri batean ikus ahal izango dira.

**Nola bereiz daitezke enarak eta sorbeltzak?**

Enarek sabelaldea zuria dute. Enara arruntak paparra gorrixka du, eta isatsa oso luzea, sarde itxurakoa; enara azpizuriak, ordea, isatsa laburra du. Sorbeltzak beltzak dira eta isatsa laburragoa dute.

**Habiak ere ezberdinak dira.**

Sorbeltzek arrailetan egiten dituzte habiak: harrietako zuloetan, teilen azpian... Enarek buztinezkoak egiten dituzte: enara arruntarenak ontzi ireki baten itxura izaten du; enara azpizuriarena, berriz, itxi-itxia izaten da, zulo txiki bat baino ez du sartzeko eta ateratzeko.

**Herri eta hirietako espezie bihurtu dira?**

Enara arrunta landa eremuetan bizitzen da; enara azpizuria eta sorbeltza, berriz, herri eta hirietan.

**Sorbeltzak ez dira lurreratzen, lur hartuz gero ez dakitelako berriro hegan egiten.**

Umaldean salbu, ez dira gelditzen. Bete egiten dute hegan, baita lo daudenean ere.

**Lo daudenean ere bai?**

Pixka bat gorago igotzen dira, metabolismoa lasaitzen dute, eta lo egiten dute hegan ari direla.

**Zertarako erroldatu habiak?**

Aurkitu nahi ditugu, urteetako jarraipena egiteko; udalek jakin dezaten zer eraikinetan dauden; eta, eraikinetan edo teiltuetan bertzeako orduan, hori ere aintzat hartzeko.

**Legeak zigortu egiten du enaren habiak apurtzea.**

Bai.

**Arriskuan dauden txoriak dira?**

Europar bai.

**Zergatik?**

Intsektujaleak dira, baina pestizida artifizialek intsektuak hiltzen dituzte; habiak puskatzen dizkiete; eraginkortasun energetikoa aintzat hartuta, eraikinetan eta teiltuetan isolatu egiten dira, eta ez da zirrikiturik uzten; enara arruntek gero eta baserri gutxiago dituzte habiak egiteko; lokatza ez da hain erraz itsassten eraikin berrietako materialetara; eta migratzeko bidaietan asko hiltzen dira. Milaka kilometro egiten dituzte Afrika erdira edo hegoaldera, eta hegazti txikiak dira, hamaikobost bat gramokoak.

**Arruntak eta gertukoak direnez, gutxiago estimatzen ditugu?**

Mendiarekin eta naturarekin lotzen dugu biodiversitatea. Hurbil ditugun gauzak ez ditugu ikusten.

**Haien historia ezagutzuz gero, gehiago estimatuko genituzke?**
**Enarek milaka kilometroko migrazioak egiten dituzte Afrika eta Europa artean.**

Uste dut jendeak badakiela hori. Umaltzera etortzen dira, beti habia berera eta beti bikote berarekin. Martxoaren erdian edo apirilaren etortzen dira Afrikatik, eta abuztuaren bukaeran joaten dira.

**Aitxor bat da etxe hondoan habia bat izatea?**

Bai, urtero bueltatzen dira, haien bizimodu ezagutu dezakezu, oso erraza eta ederra da umekin jarraipena egitea, eta sekulako hegaldiak egiten dituzte.

**Kontrakoeke esango dute kaka egiten duten aitxorra direla.**

Bai, zikindu egiten dituzte espaloiak, terrazak... Badaude neurriak. Apalak-eta jar daitezke.

**LOTSABAKO**
**Enarei buruzko liburu bat?**

Oso erraza da haurrak ornitologian murgiltzea enarekin, eta Mikel Mendibilen *Enara tipia* aukeratu dut [Denonartean], oso ederra.

**Pestizida naturalak dira?** Bai. Enara arruntak 800 intsektu jaten ditu egunean; enara azpizuriak, 530; eta sorbeltzak, 55 kilo urtean, eltxoak baten ere.